

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Aramaioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua betetzea, gaikuntza nazionala duten toki-administraziooko funtzionarioentzat gordeta

Kontuan hartuta beharrezkoa izango dela idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea, hutsik egotearen ondorioz.

Ikusirik gaikuntza nazionala duten toki-administraziooko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak.

EBATZI DUT

Lehenengoa. Hasiera ematea Arabako Foru Aldundiari Aramaioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua betetzeko gaikuntza nazionala duen toki-administraziooko funtzionarioaren izendapena proposatzeko prozedurari, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren batean eta adierazitako lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, 5 egun balioduneko epea irekitzea bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eta eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera eta adierazitako dokumentazioa erantsita.

Gaikuntza nazionala duten toki-administraziooko funtzionarioak izendatuko dira, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Egoera bakoitzean, lehentasuna izango dute, eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik Eusko Jaurlaritzak argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Izangaien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eta Aramaioko Udalak hurrenkera horren arabarako izendapenaren aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatu behar harko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkez dezala, aipatutako artikuluetan adierazitakoaren arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkeztu ezean, gaikuntza nazionala duten toki-administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena. Ebazpen honen berri ematea Osoko Bilkurari, egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

- Izena: idazkaritza. 3. Mota.
- Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.
- Eskala: gaikuntza nazionala.
- Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.
- Taldea: A1.

- Lanpostu-mailako osagarria: 29.
- Berriazko osagarria: 22.161,45 euro.
- Hizkuntza-eskakizuna: 4. Derrigortasun data: 1994ko abenduaren 31.

Aramaion, 2025eko martxoaren 17an

Alkaltea

ASIER AGIRRE MUGARTZA